

BERE ESKUBIDEEN JABE..GOTZONE KALERA ORAIN!

Gotzone 1958ko abenduaren 15ean jaio zen Agurainen.

1989ko irailaren 17an Guardia Zibilak atxilotu ondoren espetxeratu zuten eta torturak salatu zituen.

Kartzelan emandako **ia 22 urteetan sakabanatuta** egon da. Jaenen 18 urtez egon ondoren, eta azkeneko urtea Valladolideko espetxean eman eta gero, duela 10 egunetik hona Martuteneko espetxean dago.

2007ko ekainean **bularreko minbizia** diagnostikatu zioten.

Gaixotasuna diagnostikatu eta tumorea erauzteko operazioa egin ondoren, erradioterapia tratamendua hasi zuen 2007ko irailean. Hala ere, **behin eta berriro errepikatu ziren tratamenduaren atzerapenak, etenaldiak eta arazoak**: hainbat saio bertan behera geratu ziren ospitalera eraman behar zuten poliziak agertu ez zirelako, eskuak atzean lotuta eraman izan zuten ospitalera, medikoaren kontsultan poliziak egon ziren intimitatea eta isilpekotasuna urratuz, zaintza ardura zuten polizien tratua bortitza izan zen, makina hondatuta zegoen aitzakia zela eta bertan behera geratu ziren hainbat erradioterapia saio...

2007ko **abuztuaren 2an Jaengo kartzelako Tratamendu Batzordeak, aho batez baldintzapeko askatasuna eskatzea erabaki** zuen. Hala ere, **abuztuaren 9an batzorde bera iritziz aldatu zen**, oraingoan askatasunaren aldeko boto bakarra izan zen, mediku zuzendariordearena. 2007ko azaroaren 16an Auzitegi Nazionalako Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralak baldintzapeko **askatasun eskaera ukatu zion bere ideia eta balioei uko ez egitegatik**.

2010eko abuztuaren 11n kondena bere osotasunean beteta, aske atera behar bazuen ere, ez zen horrela izan. Ateratzeko eguna baino egun gutxi lehenago Gorenaren Doktrina aplikatu zioten **eta beste 9 urte bete beharko dituela jakinarazi zioten**.

Oraindik bi urteko tratamendua falta zaion arren, **Valladolideko kartzelako zerbitzu medikoak, kontsultetara eraman behar zuten polizien jarrerak eta egoerari jaramonik egiten ez dioten arduradunek oztopatu izan dute Gotzonek baldintza duinetan jaso beharko lukeen tratamendua**, kontsulta baldintza horietan egiteari uko egin eta kartzelara itzuli behar izateraino. Izan ere, iazko urrian eta azaroan, hainbat kontsulta egin gabe itzuli zen kartzelara, baldintza horietan kontsulta medikoa edukitzeari uko egin eta gero. Gainera 2010ko apirila-maiatzean egin behar zioten mamografiari ere uko egin behar izan zion arrazo berberengatik, gaur egun oraindik, urtebete beranduago, erradiografia horren zain jarraitzen du.

Bizi duen egoera larria dela eta kezkatuak, senide, lagun eta herriko hainbat pertsonok "S.O.S GOTZONE" ekimena abiatzea erabaki genuen, **Gotzoneren berehalako askatasunaren aldarrikapenaren aldeko plataforma anitza eta herrikoia osatzea helburu** duena. Bide honetan

hainbat ekimen jarri dira habian: Gotzoneren gutunaren zabaltzea, bere egoera azalduz, Dosierra osatu eta honen zabalpena, hau dena ezagutarazteko hitzaldi informatiboa, mobilizazioak, salaketa gutunak bidaltzea, elkartasun postalak... hainbat izan dira zentzu honetan planteatutako jarduerak. Gaurko argazki handi hau ere bide horretan kokatzen dugu.

Momentu honetan atxikimenduak jasotzeko fase batean murgilduta gaude. Horretarako bi mailatan proposatzen dira atxikimenduak. Alde batetik, **maila kolektiboan**, herriko hainbat eragile politiko eta sozialekin, izaera soziala, kultural edo kirol mailakoa duten elkarrekin, elkarte gastronomikoekin, herriko kuadrila ezberdinekin... jarri gara kontaktuan. Asmoa, lehen eskutik gure bizilagunaren egoera ezagutzeko aukera eman eta talde mailan euren atxikimendua jasotzea izan da.

Esan beharra dago, **herriko hainbat taldek eman izan duela atxikimendua honez gero:** LAB, ELA, Olbea Euskaldunon Elkarte, Lezaola Pilota Kluba, Amalur talde ekologista, Pedro Lope de Larrea Ikastola, Txindurri Irratia, Sagarmin Elkarte, Astorreka Elkarte, Potrodonak Elkarte, Iturritxo Elkarte, Jotafa Txaranga, Kontrastako Elkarte... Esparru ezberdinetako taldeak dira hauek gure herrian sindikalgintzakoak, euskalgintza, kirol mundua, Elkarte gastronomikoak, kultur arlokoak, ekologia mundukoak... **Dinamikak oso harrera ona** izan duela adieraz nahi dugu, eta oraindik ere kuadrila eta talde gehiagok bat egingo dutela badakigun arren, atxikimenduaz haratago, **Gotzoneren egoeraren inguruko kezka bizirik eta oso zabaldua dagoela agerikoa da egun, herrian.**

Bestetik, banakoen atxikimendua jasotzeko **sinadura bilketa** dinamika bat jarri genuen habian, herriko toki ezberdinetan mahaitxo bat jarri izan dugularik honi begira. **Dagoneko 600 pertsona** inguruk aldarrikapenarekin bat egin eta bere sinadura eman du. Hemendik aurrera, planteatuko diren bestelako dinamikez gain, **lan honekin jarraitu eta zabaltzeko asmoa dugu**, atxikimenduak eta sinadurak batuz **Aguraindik haratago ere**. Hemendik beraz, salaketa eta askatasun aldarrikapen honetan gutako bakoitzak bide honetan aporta dezakegun aletxoak ipintzera animatzen zaituztegu... **denon arteko lanaz bakarrik ekarriko baitugu Gotzone etxera.**

Positiboki baloratzen dugu Gotzone Martutenera ekarri izana. Izan ere, aldarrikapen **historikoa eta oinarrizkoa** da presoek kondenak euren etxeetatik ahalik eta hurbilen betetzea, eta hortaz, **dispertsio politika ilegala desagerrarazi eta euskal presoak Euskal Herrira ekarri behar dituzte**. Gotzone Euskal Herrian kokatua dagoen espetxe batean egonik, orain arte pairatu behar izan duen mediku desasistentzia larri horretatik, **asistentzia eta mediku jarraipen duin batetara pasatzea exijitzen dugu gainera.**

Baina hala izango balitz ere, **espetxean jarraitzeak zigor gehitu eta bidegabe bat jarraitzen du izaten**. Gotzonek gaixo larria izaten jarraitzen du, eta beraz, **benetan osatzeko leku bakarra bere etxearen artean da, askatasunean**. Espetxeak gaixotzeaz gainera, sendatzeko aukerarik ematen ez baitu. Eta zoritxarrez, zentzu honetan adibide garbia eta latza dugu egunotan jakin dugun **Mikel Ibañez-en heriotza**.

Mikelek larriki jasan zuen espetxean egonik medikuen asistentzia eza .2008. urtean espetxean zela ospitaleratu egin behar izan zuten, eta minbizia zuela jakin zuen. Ebakuntza egin

eta espetxera eramán zuten berriro. Diabetesa eta soriasia ere izan zuen, eta **tratamendurik ez zuen jaso**. Osasun egoera zela eta, **2008ko maiatzean jarri zuten kontrolpean aske**. 2010eko uztailean bihotzekoak jota sartu zuten Donostiako ospitalean, baina **abuztuan berriro atxilotu zuten**, dagoeneko osatuta zegoela argudiatuta. **Hilabete geroago utzi zuten berriro aske, kontrolpean**. Urtarrilean, aske utzi zuten, baldintzapean. **Osasun asistentzia egokia izateko eskubidea denbora luzez ukatu diote, bai espetxean, bai etxean preso izan dutenean** ere...agerikoak dira guzti honen ondorioak beraz.

Horregatik egon behar dute **preso gaixo larriek benetako askatasunean**. Horregatik, eta **8 hilabete badirelako bere kondena osotasunean bete zuela** oihukatzen dugu ozen eta tinkotasunez Aguraindik...**NAHIKOA DA!! GOTZONE ASKATU ORAIN!!**

BIZIARTEKO ZIGORRIK EZ!

GAIXO LARRIAK ETXERA!

DENON ARTEAN GOTZONE ETXERA!

Agurainen, 2011ko apirilaren 9an

S.O.S GOTZONE EKIMENA